Genero-ikuspegidun hezkuntza larrialdi-egoeretan Filtun, Somali eskualdean

Helburua:

Filtu-n oinarrizko hezkuntza inklusibo, ekitatibo eta erresilienterako sarbidea indartzea, eskola-ingurunea eta WASH zerbitzuak hobetuz.

Eremu geografikoa: Etiopia. Somaliako eskualdea. Filtu udalerria

Tokiko Antolakuntza: Pastoralist Concern

Iraupena: 2026ko azaroaren 1etik 2027ko martxoaren 31ra

Pertsona onuradunak: 9300 pertsona 5.036 emakume eta 4264 gizon.



Laburpena:

Krisi klimatikoa behin eta berriz gertatzen denez — batez ere lehortea —, Pastoralist Concernek (PC) eta Medicus Mundi Gipuzkoak (MMG) proiektu hau proposatu dute 2024an hasitako esku-hartzearen jarraipen-fase gisa. Proiektuaren helburua da bermatzea krisiaren eraginpean dauden haurrak modu ekitatiboan, seguruan eta etengabean sar daitezen kalitatezko hezkuntzan, hezkuntzarako eskubidearekin eta diskriminaziorik ezaren printzipioarekin bat etorriz.

Aurreikusitako emaitzak:

- Eskola-ingurunean antolakuntza, lidergoa eta kontu-ematea indartzea, hezkuntza inklusiboa eta higiene-arau egokiak dituen ingurunea eskaintzeko.
- Ikaskuntza-ingurune segurua eta babes-estandar egokiak dituena ezarri da, ur-, higiene- eta saneamendu-sistemen bidez (WASH).
- Proiektuaren jarraipena eta Donostiako ikasleen sentsibilizazioa bermatuta

Aurrekontu osoa: 40.000€

Finantzatzailea:

40.000 (€) Gipuzkoako Foru Aldundia